

## Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Urtean Zeharreko 24. Igandea

2009 Irailak 13 (B urtea)

Patxi Otamendi

Isaias 50, 5-9a

Santiago 2, 14-18

Markos 8, 27-35

- Pedrok tinko erantzuten du nor den Jesus: Mesias. Horrelakorik publikoan ez aitortzeko agintzen zaio. Markosen ebanjelio osoan pasarte hau bakarra da Jesus Mesias bezala ez agertzeko eskaera duena. Eta ondorenean hil egingo dutenaren iragarpenean Jesusek beste titulua erabiltzen du: “Gizonaren Semea”. Ez Mesias.
- Markos ebanjelaria kontrajarpenen bidezko paradoxa zalea da. Greziarren dramatan bezala, pertsonaiaren ezaugarriak nolabait aurkeztu eta era berean gerorako atzeratu egiten ditu. Hara pasartean zehar ageri den kontrajartze katea:

*Izenak.* Pedrok dio *Mesias* dela, eta Jesus berak *Gizonaren Semea*.

*Isilpen agindua:* pasarte hasieran Pedrori Jesusek isiltzeko agintzen dio, eta ondoren Pedro da Jesus isilarazten duena.

*Lidergoa.* Lehen aitortzean Pedro ageri da lider bezala, eta ondoren Satan mailan jartzen du Jesusek. Bitxia da gerora Jesusengandik gidaritza eskumenak jasoko dituen Pedrori “Satan” deitzea. Satanas bezala izendatzea iraintzea zen.

*Jesusen ezagutza.* Jesusen lehen agerpen publikoetan jendea ohartzen hasi zen pertsonai berezia zela. Ikasleen taldeak Maisua sakonkiago ulertu eta ezagutzeko aukera bikaina zuen. Beraz, ez da berdina zer zekiten Jesusetaz ikasleak eta zer zekien edo sumatzen zuen jendeak.

Greziar dramatan heroiaren izaera ustekabean ezagutzera ematen bazen, hemen Jesus bera da bere nortasunaz galdera bidez eztabaida eta ezagutze-bidea zabaltzen duena.

- Zergatik da Pedro “Satan” deitua? Agian oraindik ez duelako Espiritu Santua jaso, eta fedean apalago eta “ikasleago” izan behar duela azpimarratzeko. Hitz arrakastatsuak esan orde, hobe lukeela hitzen hausnarrean jardutea.

Gainera, ekitaldi bakoitzean Jesusek espero du ikasleek urrats bat gehiago aurreratuko dutela ezagutzan. Baina ulermenean aurreratu ezinean dabilzela ohartzen denean, bestetan bezala, oraingoan ere astindu erretoriko ederra botatzen die.

Oso agerian geratzen da zein desberdin ulertzen duten mesiastasuna Jesusek eta ikasleek. Eta ondoren, Ebanjelio honetan lehenbizikoz, Jesusek *Gurutzea* aipatu eta aurreratzen du. Epikteto

pentsalari zinikoak zioen gurutzatua izateko nahiko dugula itxarotea, gurutze unea noiz edo noiz etorriko baitzaigu. Orduan izango da benekotasuna agertzeko aukera.

- Garai haietako ziniko eta estoikoek zioten ikasle bat benetako filosofo bilakatzen zela bere maisuaren patu txarreko unetan atzera egiten ez zuenean, nahiz eta heriotza jasotzeko arriskua izan. Hau da: egiaren bidetik egin ezker muturreraino, herioraino, joateko prest egon beharra dago.

Eta galdera hau agertzen zuten: nola prestatzen da bat heriotzarekiko beldurra gainditzeko? Eredugarri izan den norbaiten pasarte ezagutu eta norbere eginez.